

Añorga

Gailurrez gailur

Lierni Otamendi (943-363436)

Kalean da, dagoeneko, Añorga Kultur eta Kirol Elkarteko mendizaleen aurtengo egutegia, eta, oraingoan ere, hilabetero izango dira ibilaldiak, bai helduentzat, bai haurrentzat.

Duela aste batzuk Astunera eskiatzera antolatu zuten bidaia, baina, arazo batzuk medio, ez ziren joan. Haurren ibilaldiei dagokienez, Alkizatik Erniora



Otsailaren 24 eta 25ean haurrak eskiatzera joango dira.

irteera antolatu dute datorren hilaren 28rako. Otsailerako hiru irteera aurreikusi dituzte. Lehena Santa Ageda bezperan,

hilaren 4an, izango da. Egun horretan, Beasaindik Zumarragara joango dira, Usurbe, Mandubia eta Izaspitik barrena.

Haurren irteera Andazarratetik Zubietara izango da. 24 eta 25ean, berriz, eskiatzera joango dira bi egunetarako.

Martxoan, lehen asteburuan, Errizpe eta Gaztelaitz mendietara igoko dira Leaburutik, eta, bigarrenean, haurrentzako ibilaldi neurtua antolatuko dute. Apirilean, Aste Santuaren aurretik eta ondoren izango dira irteerak: apirilaren 7an eta 8an Anayet mendira joango dira eta 22an, berriz, haurrekin Txindokira egun osorako. Azkeneko hau izango da haurren azken irteera, ikasturteka antolatzen baitituzte irteerok.



Martutene

IRUTXULO

arantzazuko Ama ikastolako ikasleak haurren danborradan aterako dira. Talde jendetsua osatu da ikastolan, izan ere, ia 100 ume irteango dira San Sebastian egunean. Aitor ikastolako eta Jesuitetako konpainien artean joango dira Martuteneko danborrari txikiak, hau da, 44.

Ikastola festaz festa

lekuan. Ikasleak jo eta su ibili dira azken asteotan, Sarriegiren doinuak behar bezala jotzeko. Bestalde, aipatu behar da ikastolako arduradunek laster ihauterietan egiten den festa antolatzeko lanetan hasiko direla. Ihauteri festa Astigarrako edo Martuteneko egoitzan egingo da. Bertan parte hartu nahi izanez gero, argi ibili.

Lantegi berriak Gaztelekuan

Dagoeneko prest dute Gaztelekuan datorren hiruhilabeteko egitaraua. Hainbat lantegi antolatu dira: antzerkia, perkusioa, baratzagintza, magia eta kirol masajea, besteak beste.

Egun osoz zabalik (10:00etatik 23:00tara)

MUXARRA
 BOKATERIA

Karta • Eguneroko menua • Bokatak

IGARA bidea, 16 behea DONOSTIA 2009

Tel.: 943 31 07 97 • 943 21 76 86

San Sebastian
 Egun honetan

Zonionak Donostiar guztiak!

Hotel de Londres y de Inglaterra

Zubieta, 2 Tel. 943 44 07 70 SAN SEBASTIAN